

/ Nabarmenezkoak

- > Hegaztien Mundu Eguna ospatuko da Boluen (2. or.)
- > Oso ona, edukiontzi adimenduaren proba pilotuaren balantzea (4. or.)
- > Manolo Rey-Baltar eta Borja Reig, Snipe klaseko Europako txapeldunak (4. or.)



39. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Urriak 8, ostirala, jardunaldiak hasiko dira magiarekin, 19:00etan, Muxikebarrin. Sarrera: 12€.

Kale antzerkia bultzatuz. Urriak 8, ostirala, Kale antzerkiko zirkuitua hasiko da, "Diberti-Dantza" lanarekin (Deabru Beltzak). 18:00etan, Algortako Biotz Alai plazan

**A-
GENDA**

KIM eta Simonides omenduko dituzte edizio honetan, eta profesionalentzako topaketak eta tailerrak izango dira lehenengo aldiz

Egitarau zabala eta 40 saltoki izango ditu Komiki Azokak

Asteburu honetan, urriaren 1etik 3ra, bederatzigarren artearen munduak derrigorrezko hitzordua dauka Komikiaren Azokan, eta eskaintza komertzial anitza eta ekin-tza ugari izango dira bertan. Areetako Geltokia plazan, oraingoan karparik gabe, 40 saltoki egongo dira, komiki-dendak, liburu-denda espezializatuak, argitaletxeak eta fanzineak, besteak beste. Halaber, Romo Kultur Etxea-RKE, jarduera-egitarau zabala garatuko da: hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, argitaletxeen aurkezpenak, erakusketa bat eta abar.

Azokaren aurtengo nobedade nagusia profesionalentzako tailer eta topaketak izango dira. RKEk hartuko ditu horiek urriaren 3an, Getxo Ekinez planaren barruan daudela, horren bitartez pandemiaren ondorioei aurre egin eta sormen sektoreari babesa eman eta gure artisten harrobiaren aldeko apustua egiteko. Halaber, nabarmen-



tzekoa da aurtengo ekitaldiaren eskaintza zabala eta bizia, adin desberdinetako ikusleengana hurbiltzeko asmatua.

Arlo artistikoari dagokionez, Getxok, ohi denez, egile ezagunak hartuko ditu, hitzaldietan, aurkezpenetan eta, nola ez, sinaduren txandetan parte hartuko dutenak. Aurkezpen-ekitaldi horietan, zaleek beren egile gogokoak ber-

tatik bertara ezagutu ahal izango dituzte.

Kim-ek azokaren omenaldia jasoko du aurten, *El Jueves* aldizkari satirikoaren orrietan *Martínez el Facha* pertsonaiagatik, baita Antonio Altarribarekin batera *El arte de volar* lanagatik ere. Horri esker Komikiaren Sari Nazionala irabazi zuten. Harekin batera, beste beterano ospetsu batek ere jasoko du

omenaldia: Ernesto Murillo *Simonides*-ek. Azken hori euskal komikigintzaren erreferentea da, batez ere *TMEO!* argitalpenean egindako lanagatik. Halaber, Azokan Santiago Sequeiros, aurtengo kartelaren egilea, eta Javier Olivares, 2015eko Komikiaren Sari Nazionala *Las Meninas* lanagatik, izango dira. Gonbidatuen zerrenda Luis Bustos, Mónica Lalanda, Alvaro Martínez Bueno eta Elsa Ruizek osatuko dute, besteak beste.

Erakusketa

Azoka dela eta, Romo Kultur Etxeko erakusketa aretoan *Odol tinta: Banpiroari omenaldia* erakusketa izango da urriaren 1etik 24ra. Emakumezko 25 artisten lanak bilduko ditu erakusketak, horien artean, komikigintza eta ilustrazioaren munduko izen ezagunak eta etorkin handiko talentuak, esaterako, Raquel Alzate, Natacha Bustos, Mamen Moreu, Ana Oncina, Mireia Perez eta Sandra Uve.



Bizkaia Zubia plazako komun publikoak zabalik daude jendearentzat

Bizkaia Zubia plazako komun publiko berriak zabaldu dira dagoeneko herritarrentzat, komun horiek eraberritzeko lanak amaitu ondoren. Nabarmen hobetu dira lurpeko komun horiek, 143.000 euroko inbertsioarekin. Izan ere, ahalik eta funtzionaltasun handieneko diseinuarekin berriro dira, herritarren erabilera erosagoa izan dadin, kalitate arkitektonikoa izan dezaten, eta garbitzeko eta mantentze-lanak egiteko eta

materialak eta elementuak erraz berriro daitezela. Gainera, komunaren erreforma integralaz gain, haien barrualdean sartzeko irisgarritasuna ere konpondu da.

Ekipamendu berriak bi sexuarentzako komun bereziak ditu, eta horiei ezgaitasuna dutenentzako komun misto bat gehitu zaie, haurtxoentzako aldagailu bat duena.



IRAILAK 30 OSTEGUNA

Irrintzi ikastaroa. 18:30ean hitzaldia eta 19:30ean Irrintzi tailerra. Eguraldiak laguntzen badu Portu Zaharreko belardian, bestela Algortako Azebarri elkartearen. Izena emateko: 656798622 / www.azebarri.eus

URRIAK 1 OSTIRALA

19. Komiki Azoka. Merkataritzagunea 40 saltokirekin Areetako Geltokia plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00. Sarrera dohainik. **Jarduerak** RKE-Romoko Kultur Etxean, hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, aurkezpenak... **Erakusketa.** Odol Tinta (Banpiroari omenaldia). Ermakumezko 25 ilustratzaileen lanak, Romo Kultur Etxean. Hilaren 24ra arte.

URRIAK 2 LARUNBATA

19. Komiki Azoka. Merkataritzagunea 40 saltokirekin Areetako Geltokia plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00. Sarrera dohainik. **Jarduerak** RKE-Romoko Kultur Etxean, hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak, aurkezpenak...

Kontzertua. 19:30ean, Muxikebarrin, Artesus Orquesta. Sarrera: 8€.

Ingurumen aretoa. 11:00-13:00. Bolueko esploratzaileak (autogidatua). 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. Ziribika (autogidatua) inguruko tximeletak ezaguzeko (6 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: ingurumenaretoage@getxo.eus

URRIAK 3 IGANDEA

19. Komiki Azoka. Merkataritzagunea 40 saltokirekin Areetako Geltokia plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-20:00. Sarrera dohainik.

Kontzertua. 19:30ean, Muxikebarrin, Bixente Martínez: "Txoria buruan eta ibili munduan". Sarrera: 5€.

Bisita gidatua eta antzeztua. "deapie". Horacio Echevarrieta. 11:30-12:45h. Irailaren 26an egingo da berriro. Argibide gehiago Turismo Bulegoan: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30 Txiki tailerra: "Egin ezazu apo lasterkariaren habitataren maketa" (6 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: ingurumenaretoage@getxo.eus

URRIAK 4 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan Romo Kultur Etxean, "Eperlanda II-Asentamiento de ametralladora del Cinturón de Hierro de 1937-Campaña de excavación arqueológica de 2021". Hizlaria: Iñaki



- Ingelesa. Irakasleak eskolak ematen ditu. Eskarmentu handia. Tel.: 687 00 06 50. Romo.

Libano (Edestiaurre Arkeologia Elkar-teen presidentea). Online: <https://labur.eus/2021sinope10>. Antolatzaile: Asociación Cultural Sinope.

URRIAK 6 ASTEAZKENA

Toponimia ibilbidea. Betiko Getxo, 18:30ean, irteera Andra Mariko kiroldegitik. Euskaraz. Udalak antolatuta, Bizarra Lepoan elkarrekin elkarlanean. Informazioa eta izenematea: www.getxo.eus/ www.bizarralepoan.eus/ / 688 635 350

URRIAK 7 OSTEGUNA

Kontzertua: Bakarka zizkloa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, Iholdi Beristain. Sarrera: 5€.

URRIAK 8 OSTIRALA

Kale antzerkia bultzatuz. Kale antzerkiko zirkuitua. "Diberti-Dantza" (Deabru Beltzak), 18:00etan, Algortako Biotz Alai plazan. Euskaraz. Familiarako. Sarrera dohainik.

39. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Magia. "Houdini, la magia de la TV" (Sun magoa), 19:00etan, Muxikebarrin. Sarrera: 12€.

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Areatoan, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

URRIAK 9 LARUNBATA

Kale antzerkia bultzatuz. Kale antzerkiko zirkuitua. "Erdi Aroko ipuin magikoa Euskal Herrian" (Oliver magoa), 13:00etan, Algortako Biotz Alai plazan. Euskaraz. Familiarako. Sarrera dohainik.

39. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Magia. "Maitasunaren itxiera" (Arriaga Produzioak), 19:00etan, Muxikebarrin. 12€.

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: "Hegazti formako txotxongilo mugikorak" (6 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: ingurumenaretoage@getxo.eus

URRIAK 10 IGANDEA

Kale antzerkia bultzatuz. Kale antzerkiko zirkuitua. "KOBR3" (Zirkozaurre), 13:00etan, Algortako Biotz Alai plazan. Testu barik. Familiarako. Sarrera dohainik.

39. Arte Eszenikoen Jardunaldiak. Magia. "Al desnudo" (Metamorphosis Dance-Iratxe Ansa), 19:00etan, Muxikebarrin. 12€.

Bisita gidatua eta antzeztua. "deapie". Horacio Echevarrieta. 11:30-12:45h. Irailaren 26an egingo da berriro. Argibide gehiago Turismo Bulegoan: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus

Ingurumen aretoa. 10:15-10:45 eta 11:15-11:45. Orientazioa (8 urtetik aurrera). 10:30-12:00 eta 12:00-13:30. Ezagutu itzazu inguruko zuhaitzak (6-12 urte). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: ingurumenaretoage@getxo.eus

- Berreskuratu zure argazkiak, bideoak eta familiaren pelikulak. Pasatu DVD formatora. Tel.: 630 26 58 75.

- Emakumezkoa eskaintzen da etxea garbitzeko eta lisatzeko. Lola. Tel.: 656 73 60 01.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-ri lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Ainhoa Galduroz** Zuzendaria: **Javier García**. Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**. Erredakzioa: **Nekane Ardanza**.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull Kalea z.g., 4º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. E-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao S.L.** Inprimaketa: **Bilbao Editorial Producciones S.L.U.** Banaketa: **Lantegi Batuak** Gordailu legala: **BI-388-87**



Larunbat honetan, urriak 2, hegaztien ohiko eraztunketa

Hegaztien Mundu Eguna ospatuko da Boluen

Bolueko Hezeguneko Eraztunketa-Guneak bere atea zabalduko ditu jendearantzat larunbat honetan, urriak 2, Hegaztien Mundu Eguna ospatzeko. Udal Ingurumen Arloak antolatuta, helburua hezegunearen hegazti-fauna, haren problematika eta egiten diren jarduerak ezagutaraztea da. Jarduera dohainik da eta ez da alde aurretik izenik eman behar. Jardunaldian, hegaztiei eraztuna ipintzeko ohiko ekin-tza zientifikoa gauzatuko da,

hezeguneko ponpa-etxolan, 09:00etatik 12:30era. Harrapatzen diren aleak gertutik ikusi ahal izango dira eta euren biologiaz, ezaugarriez eta hezegunearn bertan duten presentzia azalpenak emango dira. Begoña Valcarcel eta Sergio de Juan adituek aurkeztuko dute ekitaldia, ikasten ari den estazioko eraztunge taldearekin batera. Eurria edo haize gogorra egitekotan bertan behera utziko da jarduera, arrisksua delako hegaztien segurtasunerako.

Gobelaurre Zentroko lokalak erabiltzeko eskaera epea

Urriaren 7ra arte zabalik egongo da Gobelaurre Boluntariotza Zentroan dauden lokalak aldi baterako eta espazio komunak aldi baterako jardueretarako lagatzeko eskaerak aurkezteko epea. Gizarte Kohesioko jarduera eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko elkarreentzat dira aipatutako guneak. Eskaerak administrazio elek-

tronikoaren bulegoaren birtartez (<https://www.getxo.eus/eu/servicios-sociales/promocion-participacion/cesion>) aurkeztea gomendatzen da, eta posible ez izatekoetan, Gizarte Zerbitzuek Algortan (Urgull kalean, z/g) duten egoitzan (aurretiko hitzorduarekin 944660151 zenbakian) entregatu ahal izango dira, edo legeak aurreikusitako tokietan ere.



Indiarako benda solidarioak

IMQ Igruco Unbe euskal egoitza soziosanitarioko lanterapiako adineko pertsonen taldeko ordezkari batek kotoizko benda batzuk eraman ditu duela gutxi Areetako Ama Mesedetako parrokiara. Benda horiek eskuz ehundu dituzte egoiliarrek, eta nazioarteko lankidetzaproiektu batera bideratu dituzte, Indian legenarrak kaltetutako hainbat pertsona zaintzeko. Pedro Casado parrokiako sakristauak eta Jose Manuel Anton erretiratutako parrokoak hartu zuten taldea. Tenplua bisitatu ondoren, Indiako proiektu solidarioaren eta helburu sozial eta sanitarioekin ehuntzeko esperientziaren berri eman zen hitzaldi batean.

Alokairurako laguntzak eskatzeko epea

Urriaren 13ra arte, gazteek gazteek (18 eta 35 urte bitartekoek) etxebizitza alokatzeko eta emantzipatzeko laguntzak jasotzeko eskabidea aurkeztu ahal izango dute. Horiatarako 250.000€ bideratu dira. Xedea da ohiko etxebizitzaren alokairuaren parte bat ordaintzera laguntzea. Kontratua sinatuta egon beharko da 2018ko irailaren 29tik aurrera eta 2019ko abenduaren 31ra, eta gehienez 12 hilabetekoa izango da dirulaguntzak beteko duen aldia. Eskaerak: Algorta eta Areetako Herritarrentzako Arreta Bulegoetan (HAB) eta udalaren webgunean. Laguntzak emateko eskabideen aurkezpen ordenari jarraituko zaio, aurrekontua agortu arte. Aurrez aurreko informazioa Algortako Herritarrentzako Arreta Bulegoan (Torrene 3), astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Oinarriak, eskabide-orria, informazioa eta gida eskaera online egiteko: <https://www.getxo.eus/eu/vivienda/noticias/46>

Boluntarioak Gurutze Gorriarekin

Uribe Aldeko Gurutze Gorriak herritarren laguntza behar du hezkuntza-proiektuak aurrera ateratzeko, hala nola hizkuntza-laguntza eta eskola-arrakasta. Astean pare bat ordu egin beharko dira arratsaldean. Konpromisorik gabeko informazioa 94 460 92 95 telefonoan

Omenaldia ehun urteko beste emakume batentzat

Udalak Maria Micaela Pérez Larracochea omendu du irailan, 100 urte bete izanagatik. Horregatik, Udalak Aixerrrotako errotaren erreproduktzio bat eta lore sorta bat bidali dizkio aipatutako auzokideari bizi den egoitzara, Amaia Agirre alkatearen eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziaren gutun batekin batera. Horretan esaten diote "ehun urtetik gorako pertsonak gure iraganeko eta gaur egungo garaiko oroimen bizia ordezkatzeko dute, eta balio handiko giza ondarea dira".



Arteus Orkestraren kontzertua, Azer Lyutfalieven zuzendaritza pean

Muxikebarri izango da Arteus Orkestrak eskainiko duen kontzertuaren agertokia larunbat honetan, urriak 2, 19:00etan. Azer Lyutfaliev biolin-jotzaileak 2003an sortutako *ensemble* horrek, musika barrokitik garaikiderako erreperitorio zabala interpretatzen du ganbera orkestrarako. Taldeak, euskal abesbatzekin kolaboratzen du sarri, eta estatuko kontzertu

eta zikloetan parte hartzera gonbidatu dute.

Azer Lyutfaliev Bakun jaio zen. Bere biolin-jotzaile karrerak talde ospetsuetan parte hartzera eramandu bakarlarigisa, hala nola Ekaterimburgoko Elkarte Filarmonikoan, Moskuko Birtuosoak taldean (1991-2000), Errusiako Orkestra Nazionalan, M. Pletniev eta Vladimir Spivakovek zuzen-

dua. Jaioterri duen herrialdean, Azerbaijanen, lan pedagogiko garrantzitsua burutu zuen Musorgsky Kontserbatorioan, eta haren inplikazioak Estatu espainiareraino ekarri du, non 15 urte baino gehiagoz irakaskuntzan aritu den. Bilboko Orkestra Sinfonikoko kidea da eta Azer Quartet taldeko lehen biolin-jotzailea. Kontzerturako sarrera, 8 euro.

Bixente Martinezek bere bakarkako lehen lana aurkeztuko du

Bixente Martinez gitarristak bere bakarkako lehen lana aurkeztuko du datorren igandean, urriak 3, Muxikebarrin. *Txoria buruan eta ibili munduan* izeneko diskoa Oskorriren erreperitorio mitikoan oinarrituta dago eta abestiei bizitza berri bat emango dieten birmoldaketak eskaintzen ditu. Bertsio instrumental horietan, Martinez musikariak gitarra elektriko eta akustiko mota desberdinak erabili ditu, baita hainbat loop eta efektu ere.

Getxon, musikari eibartarra Haatik konpainiako dantzariekin batera arituko da 19:00etan, eta sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da.



“Bakarka”, herriko artista eta taldeak sustatzeko

Kultur Etxeak *Bakarka* musika zikloa jarri du martxan herriko artista eta taldeen musika sustatzeko, formatu txikiko eta jendearentzako hurbileko kontzertuen bidez. Ziklo berria ostegunean abiatuko da, urriaren 7an, 19:00etan, Iholdi Beristainen emanaldiarekin, Romo Kultur Etxean. Abeslari eta aktore gazte horrek EITBren Bago!az lehiaketa irabazi zuen 2017an eta telesail ezagunean parte hartu du, baita ikuskitun musikalerako egokitzapenetan ere.

Kontzertu horren ostean etorriko dira Nebbian Band eta Iñigo Astiz eta Jon Basagurenen saioak, urriaren 14an eta 21ean, hurrenez hurren. Sarrerak: 5€.



Horren ordez, “El Beso” antzeztuko da, Isabel Ordaz eta Santiago Molerorekin

“La habitación de María” antzezkizuna, Concha Velascorekin, bertan behera

Kultur Etxearenak ez diren arrazoiak direla eta, bertan behera geratu da abenduaren 18rako Muxikebarri zentroan programatutako *La habitación de María* antzezkizuna, Concha Velasco protagonista zuena.

Horren ordez, egun eta ordu behera, *El Beso* lana eskainiko da, Isabel Ordaz eta Santiago Molerok antzeztuta. Eta horretarako sarrerak urriaren 11tik aurrera egongo dira salgai 15 eurotan. Zabaldu-

tako komunikatu batean azaltzen duenez, Pentación Espectáculos lanaren enpresa banatzaileak eta aktoreak berak adostu dute, azken horrek hala eskatuta eta ados jarrita, amaitutzat ematea *La habitación de María* antzezlanaren bira Logroñon pasa den astean eginiko emanaldiekin.

Kultur Etxea alde zuzenetik erositako sarrera guztien itzulketaren egiten ari da dagoeneko. Txartela erabiliz sarrera erosi dituzten pertsonen laster itzuliko zaie dirua, modu automatikoan. Eskudiruz zein datafonoz ordaindu dutenak, bestalde, Muxikebarriko txarteldegira edota Romo Kultur Etxera joan beharko dira dirua eskatzeko.



Berbalaguna, Gurasolaguna eta tailerrak EGIZUrekin

MintzaPoza praktikatu! lelopean, beste urte batez, Berbalaguna eta Gurasolaguna ekimenak abian dira, EGIZU elkartearen eskutik. Giro atseginean, euskaraz laguntzeko, mintzapraktika lasai egiteko aukera eskaintzen dute jarduerak, 4-5 laguneko taldeak osatuta, astero ordubetez. Ikastetxeko gurasoak beste batzuekin biltzen dituen Berbalagunaren aldaera da Gurasolaguna. Izenematea eta informazioa: 619935541 (Berbalaguna) eta 622433085 (Gurasolaguna)

Bestalde, urteroko egurra lantzeko eta yoga tailerrak ere martxan dira. Lehena astelehenetan, 17:30ean, izango da Aldai Patronatuan eta bigarrena astelehen eta eguaztentean, 19:30ean, Aldai Patronatuan edo etxetik. Bietarako izenematea: egizugetxo@gmail.com

Azkenik, urriaren 6an, hasiera emango diote IdaZaleen txokoaren ikasturte berriari, G. Basterretxeak gidatuta. Idazten hasteko bultzada emateko, asteazketan, 19:15ean, Villamonte Kultur Etxean elkartzeko dira. Informazioa: 619935541.

Bertsolari Txapelketarako sarrerak

Muxikebarrin azaroaren 7an, 17:00etan, izango den Bizkaiko 2021eko Bertsolari Txapelketaren kanporaketarako sarrerak salgai daude jadanik. Parte hartuko duten bertsolariak Enare Muniategi (Gautegiz-Arteaga), Eneko Aldana (Forua), Josune Aramendi (Markina-Xemein), Koldo Muñiz (Forua), Malen Amenabar (Larrabetzu) eta Unai Mendiburu (Algorta) izango dira. Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus atarian eta soberan gertzen direnak txarteldegian.

Inskripzioak Itxartu dantza taldean

Datorren urriaren 31ra arte zabalik egongo da Itxartu Euskal Dantzari Taldean parte hartzeko izen-ematea, 2021-2022 ikasturtean parte hartzeko. Taldearen deialdi berri hau adin guztietako pertsonen zuzenduta dago, 4 urtetik jubilatutako artekoentzat, euskal dantzak dantzatu edo txistua edo beste edozein musika tresna jo nahi dutelako edo interesatuta daudelako. Matrikula doakoa da eta ez da inolako kuotarik ordaindu behar.

Izenematea egiteko: itxartu.itxartu@gmail.com edo tel.: 695 750 649.

18.624€, negozio-ildo berritzaileak proposatzen dituzten Getxoko 14 enpresarentzat

Udalerriko 14 enpresaren artean banatuko dira Udalak Dinamizazio Ekonomikorako Laguntzen 3. linearako bideratzen duen 18.624 euroko dirulaguntza. Lerro hau

zuzenduta dago negozio-lerro, produktu eta/edo merkaturatze berritzaileak abiaraztea sustatu eta dinamizatu nahi duten udalerriko enpresei.

ENPRESA	PROIEKTUA
UNITE Bidaia-agentzia	Market Place berria sortzea https://www.uniitetravel.com/
TELEMARKETING ALGORTA Telemarketin-zerbitzuak	Negozio-ildo berria sortzea
SUDEROW ABOGADAS Abokatu espezialisten bulegoa	Negozio-ildo berria sortzea https://suderow.es/servicios/
PROYECTA Enpresen kudeaketako aholkularitza integrala	Negozia 4.0 gestoria baterantz eraldatzea https://www.asesoriaprojecta.com/
GLOBALSOUND Marka-soinu aholkularitza	Soinuarekin eta enpresa-markarekin lotutako negozio-ildo berria sortzea http://www.globalsound.es
GOBASQUING Bidaia-agentzia	Negozio-ildo berria sortzea
N56 Barne-diseinua	Enpresaren komunikazioa berriz diseinatzea https://www.in56.es
JAIME JOSE HAYDE Diseinatzaile grafikoa	Webgunea birdiseinatzea negozio-lerro berrira egokitzeko https://jaimehayde.com
KATZ Zinemarekin lotutako zerbitzuak kudeatzeko estudioa	Negozio-ildo berri eta oso berritzailea garatzea, esperientzia oinarritua, zerbitzuak dibertsifikatzea ahalbidetzen duena filmetarako espazio fisikoak kudeatzeko. https://katzestudio.com
DOCTOR JAVI Arropa diseinatzea eta merkaturatzea	Enpresa dibertsifikatzea, negozio-eredu berria sortuz, haurrentzako arropa-linea gehituz eta produktua online merkaturatuz https://doctorjavi.com
IMANOL LOIZAGA Kirol entrenatzailea	Sareetako presentzia indartzea, bezeroen beharretara egokituta https://www.imanoloizaga.com/
MARIA MAMOLAR Ongizate-zerbitzuak	Negozia eraldatzea, aurrez aurreko eta online mix bidez
MUCHART Tokiko artisten produktuen salmenta	Webgune berria (e-comer) eta sare-linea berria diseinatzea bezero-profil berrirantz joateko
NOISSMART Zarata-aholkularitza	Merkaturatzeko kanpaina osoa diseinatzea https://www.noismart.com/noisense/



Kanpaina ixteko ekitaldian, Amaia Agirre alkatea buru zelarrik, parte hartu duten hiru ikastetxei berrerabilitako gailuak oparitu zizkieten

Tresna elektriko eta elektroniko txikien 380 kg baino gehiago bildu dira

Oso ona, edukiontzi adimenduaren proba pilotuaren balantzea

Tresna elektriko eta elektroniko txikiak edukiontzi adimendunaren bidez biltzeko aurten gauzatu den proba pilotua oso positiboa izan da, Indumetal Recycling eta Recyclia ekimenaren sustatzaile diren entitateen arabera. Udalak parte hartu du kanpaina horretan, eta Europako Batzordearen CIRC4Life nazioarteko proiektuaren barruan kokatzen da.

Kanpaina zehar, 380 kg aparatu baino gehiago bildu dira (tabletak, mugikorak, ordenagailu eraman-garriak, bideoak, kamerak...) Julio Caro Baroja institutuan, Romo eta Larrañazubi herri ikastetxeetan, Romoko eta Villamonteko kultur aretoetan eta Fadura kiroldegian paratu duten edukiontzi adimenduan. Han utzitako aparatuen %13 berrerabili ahal izango da, eta gainerakoak tratamendu-instalazioan birziklatu dira. Gainera, ikasleek utzitako apa-

ratuen truke lortutako ekokreditu guztiak zuhaitzak landatzeko izango dira, baita esperientzia parte hartu duten gainerako herritarrek lortutako %46,27 ere.

Kanpainaren amaiera gisa, joan den asteartean jardunaldi bat egin zen Romo Kultur Etxea-RKEN, hari buruzko emaitzak udal ordezkariari eta inplikaturako gainontzeko erakundeei aurkezteko.



X. Serifalaris diseinu Jaialdia

Ezkutuko topaketak izenekoekin zabaldu da, aste honetan, Serifalariak jaialdiaren hamargarren ekitaldia. Getxon ospatuko da diseinuaren eta sormenaren arloko profesionalentzako urteroko topaketa, Estatuan erreferente den diseinujaialdia. Horrez gain, udazkenean zehar, Marina Goñi eta Freskue estudioek Udalaren babesarekin antolatutako jaialdiak prestakuntza eta mentoretza saioak eskainiko ditu nazioarteko estudio eta profesional indartsuen eskutik (Pati Nuñez, diseinatzaile grafikoa eta Diseinu Sari Nazionala; Astrid Stavro, Pentagram Londreseko bazkidea eta munduko diseinu-aholkulari onenetako bat; edo Daniel Solana, publizitate sortzailea eta ingurune digital berriaren Espainiako DoubleYou agentziako bazkide sortzailea). Halaber, Azkorri, udazkenleku bat ospatuko da azaroaren 12, 13 eta 14an.

Jaialdiari amaiera borobila emateko, jardunaldiak egingo dira 2022ko apirilean, Muxikebarrin.

KIROLAK

QTENTA Getxora dator

QTENTA, runningaren bidez osasuna eta eraldaketa pertsonala bultzatzen duen kirol- eta gizarte-mugimendua, Getxora iritsiko da, Imanol Loizaga atleta getxotarraren eskutik. Loizaga Espainiako Maratoi Master txapelduna eta entrenatzailea da. Urrian hasiko dira Kirol Portuan entrenamendu taldeak maila eta helburu guztietan, ordutegi desberdinetan eta, bereziki, hastapen talde bat QTENTA (Que Tus Excusas No Te Alcacen) metodoari jarraituz.

Mugimendu hori 2017an sortu zen, eta 150 neska eta 80 mutil baino gehiago Loizagarekin entrenatu dira beren kirol erronkak edo erronka pertsonalak lortzeko, edo modu seguruan eta konpainia onean korrika egiten ikasteko.

Argibideak: imanol@loizagaprest.com eta tel.: 606 336 121.



Manolo Rey-Baltar eta Borja Reig, Snipe klaseko Europako txapeldunak

Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Clubeko estropadalariek Snipe klaseko gazteen Europako txapeldun berriak dira, Almeriako txapelketaren ostean. Bi gazte estropadalariek 14 punturekin bukatu dute *Fhimasa Lastrin* ontziarekin, Juan Jose Fernandez eta Daniel Espejo anfitrioei baino bi puntu gutxiagorekin, eta etxeokak ere diren Fernando Rehek eta Martin Fresnedak baino 5 gutxiagorekin. Rey-Baltarrek eta Reigek Europako titulua lortu dute Areetako elkar-tearantz, 2003an Zulema Calvok eta Mariana Buesak L'Equipe klasean lortu ostean. Denboraldi hau oso berezia izaten ari da Rey-Baltarrentzat, uztailean Danimarkako J80 klasean munduko gazte txapelduna ere izan baitzen, Tomás Trueba, Silvia Marcé, Perico Basterra eta Nicolás Viarrek batera.